

34. FITXA. 2022ko laguntzak, gune turistikoetan merkataritza-jarduera indartzeko

Nori zuzenduta: Toki erakundeak: **20.000 biztanletik gorako udalerriak / 5.000 eta 20.000 biztanle arteko herrientzako probintzia- eta foru-aldundiak / 5.000 biztanletik gorako herriak, probintzia bakarreko autonomia-erkidegoetan / 5.000 biztanletik beherako udalerrietan**, zuntz hori gainditzen dutenak, beren **biztanleria mugikorra** kontuan hartuz gero

Sartzeko esteka: Gune turistikoetan merkataritza-jarduera

Erreferentziako arauak: [BOE](#), ICT/567/2022 Agindua, ekainaren 15ekoa

Eremuak: Merkataritza toki-erakundeetan

Zenbatekoa: 29.380.000 €

Aurkezpen-amaiera data: 2022/08/05

Laburpena

Laguntza-lerro horiek **“Turismo-sektorearen modernizazio- eta lehiakortasun-planaren” 14. osagaien** daude, 4. Inbertsioan; hau da, **“Lehiakortasunaren arloko jarduketa berezietan”**. Laguntzen helburua da **tokiko merkataritza-eskaintzaren lehiakortasuna, berrikuntza eta modernizazioa bultzatzeko proiektuak finantzatzea, hain zuzen, bisitariak merkataritza-gune turistikoetara iristearekin lotutako eskaintzarena**. Proiektu horien ezaugarri nagusia da turismoari lotutako merkataritza-eskaintza finko bat aurkeztea, eta hori lotuta egongo da, udalerrri osoko biztanleriari dagokionez, Gizarte Segurantzako afiliatuen ehunekoarekin, urtean gutxieneko ostatu-gau kopuru bat izatearekin edo udal-mugapean bigarren bitzetxeen ehuneko jakin bat egotearekin.

Horretarako, inbertsioak egin nahi dira **merkataritza-gune turistikoetan hobekuntzak egiteko, teknologia berrietan** egindako inbertsio horren esparruko jarduerak barne; **energia-efizientzia hobetzeko** irtenbide teknologikoak aplikatzeko; prozesu eraginkorrak ezartzeko ekologiaren, birziklapenaren eta hondakinak berrerabiltzearen ikuspegitik; **langileen prestakuntzarako**; atzerriko bisitariari egokitutako sinadura digital integratua ezartzeko; eta **espazio publikoak egokitzeko**, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko.

Onuradunak

Honako **toki-erakunde** hauek jaso ahal izango dituzte ezarritako laguntzak:

→ **20.000 biztanletik gorako** udalerriek.

→ **Probintziek eta uharteek**, probintziako diputazioen, foru aldundien, **kabildoen eta uharteko kontseiluen** bidez, proiektua **5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko herriei** zuzenduta dagoen kasuetan. Udalaz gaindiko onuradunek proiektu bakar gisa aurkeztu beharko dute hainbat udalerriri eragiten dien proiektua, eta proiektu hori gauzatzeaz eta justifikatzeaz arduratuko dira.

→ **Probintzia bakarreko autonomia erkidegoetan** bakarrik (eta aldundirik, Kontseilurik edota Kabildorik ez duten autonomia erkidegoetan), **5.000 biztanletik gorako udalerrriak** dituzten udalek zuzenean aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak.

→

→ **5.000 biztanletik behera** eduki arren, **biztanleria mugikorra** (leku batetik bestera bidaiatzen duena eta une jakin batean udalerrri horretan egoten dena, baina hori ohiko bizileku izan gabe) kontuan hartuz gero kopuru hori gainditzen duten udalerrriak. Baldintza hori betetzeko, gutxienez, udalaren honako zerbitzu hauetako batean % 100eko gehikuntza egiaztatu behar da:

- Zabor-bilketaren tonak
- Udal kontsumo elektrikoko fakturazioa
- Udalerrriko ur-kontsumoaren fakturazioa

Baldin eta aurretik ezarritako toki erakundeek, dela banaka, dela modu orokorrean —beren aldundiaren bitartez aurkezten direnek—, gutxienez, honako irizpide hauetako bat betetzen badute deialdi honen ondorioetarako **merkataritza-gune edo/eta merkataritza-gune turistikoko aintzatespena izateko**:

- a) Urtean gutxienez 25.000 ostatu-gau izatea; edo
- b) Bigarren bizitexeak % 30 baino gehiago izatea; edo
- c) Gizarte Segurantzaren afiliatutako 45., 46. eta 47. EJSNko langileen ehunekoa guztira afiliatutakoen % 7tik gorakoa izatea.

Onuradunak proiektuaren % 100 azpikontratatu dezake. Kasu horretan, alderdiek idatzizko kontratu bat egin beharko dute, eta emakida ebatzi aurretik aurkeztu beharko da.

Gastuetarako aldi hautagarria

Gastuetarako aldi hautagarria deialdiaren laburpenean zehaztuko da.

Laguntzen zenbatekoa eta laguntza motak

→ Finantzaketaren xede izateko aurkezten diren inbertsio-proiektuak lurralde nazionalen gauzatu beharko dira.

→ Egin beharreko **gutxieneko inbertsioa** biztanle kopuruaren araberakoa izango da:

- 300.000 biztanletik gorako udalerrietan: 1.000.000 euroko gutxieneko inbertsioa.
- 100.000 eta 300.000 biztanle bitarteko udalerrietan: 500.000 euroko gutxieneko inbertsioa.
- 100.000 biztanletik beherako udalerrietan: 200.000 euroko gutxieneko inbertsioa.

→ Proiektua **elkarrekin finantzatu** ahal izango dute laguntzaren onuradunak eta kokatuta dagoen autonomia erkidegoak, eta ekarpen hori proiektuaren aurrekontu finantzarriaren **% 40raino** iritsi ahal izango da.

→ **Eman beharreko finantzaketaren zenbatekoa, gutxienez**, finantzarritzat jotako proiektuaren aurrekontuaren **% 60 izango da eta, gehienez, % 100**, gehienez ere 2.000.000 euroko dirulaguntzara iritsiz.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Proiektuak. Onuradun izan daitezkeenen laguntza-eskaera bakarra aurkeztu beharko dute. Eskaera hori urteko kuotatan banatu ahal izango da, eta honako gastu-kategoria hauetako bat edo batzuk bildu:

→ **Bide publikoan egindako inbertsioak**, bide publikoen egokitzapen funtzionalera, hobekuntzara eta modernizaziora bideratuak; erabilera turistikoa eta merkataritzakoa hobeto integratzea dakartenak, hala nola:

- Espaloi zabalagoak egitea.

- Apaintzea, edertzea, kontserbatzea, zaharberritzea eta lorategiak jartzea.
 - Merkataritzarako eta turismorako seinaletika.
 - Irisgarritasuna hobetzeko, hirigintzako oztopoak kentzeko eta oinezkoen igarobidea hobetzeko instalazioak.
 - Merkataritza-guneen inguruan aparkalekuak jartzea.
 - Banaketako logistika-eremuak sortzea, zamalanen eta alderantzizko logistikaren ondoriozko arazoak arintzeko.
 - Mugikortasuna kudeatzeko instalazioak.
 - Hiri-altzariak hobetzea: eserlekuak, argiteria publikoa, babes-elementuak, paperontziak, hondakinen edukiontziak, besteak beste.
 - Halaber, higiezin batean egin ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen jarduketak, baldin eta toki erakunde batek baditu horretarako behar diren eskubideak.
- **Merkataritza-sektorearen digitalizazioan** eragina duten jarduketak:
- Bazkideen artean edo beren intereseko beste eragile batzuekin intranet motako kudeaketa eta komunikaziorako komunikazio-sistema elektronikoak sortzea, informazioa, ezagutzak, edo sustapen-ekintzak edo baterako ekitaldiak trukatzeko.
 - WiFi sareak ezartzea, bezeroaren esperientzia hobetzeko eta elkarrekiko onura dakarten beste sektore batzuekin sinergiak sortzeko.
 - Teknologia berrietan inbertitzea, bai saltokiaren barne-kudeaketa hobetzeko, bai salmenta turistikoak hobetzeko.
 - Estrategia digitalak, erosketak egiteko gune turistikoak bultzatzeko; multimedia edukiak sortzea merkataritza-sustapenerako; App-ak eratzea; eta merkataritza-eskaintza hedatzea sortutako tresnen bidez, besteak beste.
 - Bertako eta atzerriko bezeroaren arreta, ezagutza eta harekiko harremana hobetzea, eta bezeroa fidelizatzea, bai eta teknologia berriak eta analitika aurreratuko teknikak erabili ere.
 - Web-ingurunea berriz diseinatzea, bezeroaren erosketa esperientzia hobetzeko.
 - Publizitatea eta presentzia izatea turistak erabiltzen dituen hainbat kanal edo euskarri digitaletan, bezeroen trafikoa eta leialtasuna areagotzen laguntzeko.
 - Diagnostikoak egiteko tresnak sortzea bere udal-mugapeko merkataritza arloko elkarte eta ETEentzat, berariazko arazoak konpontzeko, lokal berri bat irekitzeko, belaunaldi-ordezkapena egiteko, administrazio-izapideak egiteko eta negozioaren bideragarritasun-planak egiteko eragiketetan laguntzeko, besteak beste.
- **Jasangarritasunarekin eta ekonomia-zirkularrarekin** lotutako gastuak.
- Saltokiek eta kontsumitzaileek beren establezimenduetan intsumoen kontsumoa murrizteko inbertsioak, eta horien ordez ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk ezartzeko inbertsioak.
 - Irtenbide teknologikoak, saltokietan energia-kontsumoaren eta bestelako horniduren eraginkortasuna hobetzeko; oinarri teknologikoa duten prozesuak ezartzea, ekoeraginkorrak, edo hondakinak (biohondakinak, papera, plastikoa, beira, etab.) behar bezala bereiztekoak, ondoren birziklatu eta balorizatu ahal izateko.
 - Bestelako jarduketak eta irtenbideak, jasangarritasuna, klima-aldaketaren aurreko egokitzapena eta efizientzia areagotzera bideratuta daudenak, eta gune turistikoetako dendetan produktuen berrerabilpena, ekonomia zirkularra eta zero xahuketa oinarri dituen ekonomia erresiliente baterantz aurrera egitea dakartenak.
 - Klima-aldaketara egokitzeko jarduketak, esaterako, merkataritza guneetan hiriko bero-uhartearen efektua arintzera bideratutako esku-hartzeak egitea espazio publikoetan.
- **Hizkuntzen arloko prestakuntza** merkataritza-sektoreko langileentzat eta autonomoentzat:
- Jardunaldiak egiteko guneen alokairua.
 - Jardunaldiak egiteko behar diren altzarien eta ekipamenduaren alokairua.
 - Jardunaldiak egiteko hirugarren bat azpikontratatzearekin lotutakoak, baldin eta hirugarrenarekin azpikontratutako jarduerak ez badu gainditzen diruz lagundutako

jardueraren zenbatekoaren % 80. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

- Hizlarien ordainsariak.
- Ikastaroen diseinu pedagogikoa egitea, tutorizatzea eta ikastaroa bera ematea, bai online, bai presentzialki.
- Merkataritza sektoreko langileentzako eta autonomoentzako prestakuntza-materialak.
- Hizkuntzak sustatzeko jarduerak.
- Inola ere ez da diruz lagunduko BEZa, bertaratuentzako ekipamenduak edo materiala, *merchandising*ari lotutako gastuak, eta tailerrak edo jardunaldiak egin aurretik sektorearen beharrak ezagutzeko egin daitezkeen gastuak.

Balorazio-irizpideak

- Aurkeztutako proposamenaren edo jarduketaren **kalitate teknikoa** (0-25 puntu).
 - Proposamena hautemandako arazora eta/edo premiara egokitzea (0-10 puntu)
 - Turismoaren erakargarritasuna hobetzeko eta inguruko turistaren eta bisitarien profil berriak erakartzeko gaitasuna (0-10 puntu)
 - Inguruko turistei eta bisitariei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzeko gaitasuna, bai saltokietan, bai merkataritza-guneetan eta inguruetan (0-5 puntu)
- Proiektuak udalerriko **merkataritza-eskaintza dinamizatze, eguneratze eta aberasteko** duen gaitasuna (0-15 puntu).
- Laguntza-eskabidean Europar Batasuneko MRRaren oinarriekin, Espainiako PRTRarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrotatuta dauden **jarduketaren kopurua**. Irizpidea **jarduketa bakoitzeko puntu batekoa** izango da. (0-10 puntu).
- Onuradunaren lurralde-barrutiaren baitan, memorian adierazitako jarduketetan **parte hartzen duten edo haren onura jasotzen duten saltokien ehunekoa**, onuradunaren jarduketa-eremuko saltoki guztiei dagokienez (0-20 puntu):
- Aurkeztutako proiektuaren **berrikuntza-maila** eta izaera frogagarria (0-10 puntu).
- **Toki erakundeak edo kokatuta dagoen autonomia erkidegoak edo hiri autonomoak** proiektua **finantzatzeko** egindako ekarpena baloratuko da, baldin eta ekarpen horiek, gutxienez, proiektuaren kostuaren % 10 gainditzen badute. **Puntuazioa handiagoa izango da baterako finantzaketaren ehunekoa zenbat eta handiagoa izan** (0-10 puntu).
- Udalerriz gaindiko proiektuak, **udalerrri asko** biltzen dituztenak, lurralde-inpaktu handiagoa dutenak eta trakzio-izaera dutenak. Zenbat eta udalerrri gehiagok esku hartu, orduan eta handiagoa izango da puntuazioa (0-10 puntu).

Proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzte.

Bestelako informazioa

Argibide gehiago:

<https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas/Fortalecimiento-ZonasTuristicas/DescripcionGeneral/Paginas/Index.aspx>

Izapidetze elektronikoa derrigorrezkoa izango da prozeduraren fase guztietan. Laguntza lortzeko eskabideak Merkataritza Politikako Zuzendaritza Nagusira bidali behar dira, hura baita prozedura antolatu eta bideratzeko organo eskuduna. Eskabide-orriak Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Laguntzen Atarian (<https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas>) bete eta aurkeztu ahal izango dira, eta han egongo dira beharrezko bitarteko elektronikoak.

